Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2022ko martxoaren 2a, asteazkena — 41 — Miércoles, a 2 de marzo de 2022

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## INGURUMENEKO ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO DEPARTAMENTUA

*Albizturko HAPO-ren lehen aldaketa puntualaren ingurumen txosten estrategikoa.*

*1. Aurrekariak.*

2021eko azaroaren 10ean, Albizturko HAPOren lehen aldaketa puntualaren ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatua egiteko eskaera aurkeztu zuen Albizturko Udalak, Hirigintza-dokumentazioarekin eta ingurumen dokumentu estrategikoarekin batera.

Albizturko Udalaren eskaerari erantzunez, ingurumen organo honek ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozedura egin dio, hala ezartzen baitu, 29. artikulutik 32.era bitartean, 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoak. Prozedura horren bidez, ingurumen organoak kontsultak egin behar dizkie aldaketak eragiten dien administrazio, pertsona eta erakundeei, eta, kontsulta horien emaitza ikusita, ingurumen txosten estrategiko bat egin behar du, non zehaztuko duen, 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, V. eranskinean ezarritako irizpideei jarraikiz, ea eragin nabarmenak sortzen dituen ingurumenaren gainean, eta horregatik, ingurumen ebaluazio estrategiko arrunta behar duen, edo ez dituen sortzen, txostenak berak ezartzen dituen terminoetan.

*2. Kontsulta egitea eragindako administrazioei, pertsona interesdunei, eta jendeari, oro har.*

21/2013 Legeko 30. artikuluan xedatutakoari jarraiki, eta aldaketaren ezaugarriei eta eragindako lurralde eremuari buruzko informazioan oinarrituta, Ingurumen Zuzendaritza Nagusi honek ondorengo administrazio eta erakundeak identifikatu ditu interesdun gisa, eta kontsulta egin die. Hala, organo sustatzaileak taxututako dokumentazioa igorri zien:

— Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza (GFA).

— GFAko Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza.

— GFAko Kudeaketa eta Plangintzako Zuzendaritza.

— GFAko Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza.

— GFAko Aldundiko Lurralde Antolaketako Zuzendaritza.

— GFAko Nekazaritzako eta Lurralde Orekako Zuzendaritza.

— GFAko Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza.

— GFAko Errepideetako Zuzendaritza Nagusia.

— Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritza.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y OBRAS HIDRÁULICAS

*Informe ambiental estratégico de la primera modificación puntual del PGOU de Albiztur.*

*1. Antecedentes.*

Con fecha de 10 de noviembre de 2021, el Ayuntamiento de Albiztur ha presentado una solicitud de evaluación ambiental estratégica simplificada de la primera modificación puntual del PGOU de Albiztur, acompañada de la documentación urbanística y el documento ambiental estratégico.

Respondiendo al requerimiento del Ayuntamiento de Albiztur, este órgano ambiental la ha sometido al procedimiento de evaluación ambiental estratégica simplificada, siguiendo para ello lo establecido en los artículos 29 al 32 de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental. A través de dicho procedimiento, el órgano ambiental debe realizar consultas a las administraciones, personas e instituciones afectadas y, a la vista del resultado de dichas consultas, emitir un informe ambiental estratégico donde se determine, de conformidad con los criterios establecidos en el anexo V de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, si produce efectos significativos sobre el medio ambiente y debe, por tanto, someterse al procedimiento de evaluación ambiental estratégica ordinaria o no los tiene, en los términos establecidos en el propio informe.

*2. Consulta a administraciones afectadas, personas interesadas y público en general.*

De acuerdo con lo dispuesto en artículo 30 de la Ley 21/2013, y basándose en la información respecto a las características de la modificación y el ámbito territorial afectado, esta Dirección General de Medio Ambiente ha identificado como interesadas y ha consultado a las siguientes administraciones y organizaciones, a las que remitió la documentación elaborada por el órgano promotor:

— Dirección de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa (DFG).

— Dirección de Montes y Medio Natural de la DFG.

— Dirección de Gestión y Planificación de la DFG.

— Dirección de Movilidad y Transporte Público.

— Dirección de Ordenación del Territorio de la DFG.

— Dirección de Agricultura y Equilibrio Territorial de la DFG.

— Dirección de Obras Hidráulicas de la DFG.

— Dirección de Carreteras de la DFG.

— Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco.

— Dirección de Calidad Ambiental y Economía Circular del Gobierno Vasco.

— Dirección de Patrimonio Natural y Cambio Climático del Gobierno Vasco.

— Dirección de Ordenación del Territorio y Urbanismo del Gobierno Vasco.

EK\CV GAO-I-2022-00950

— Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituren Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Energia, Meategien eta Industria Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza.

— IHOBE.

— EEE.

— Uraren Euskal Agentzia (URA).

— Gipuzkoako Uren Kontsortzioa.

— Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa.

— Tolosaldea Garatzen.

— Tolosaldeko Hondakinen Mankomunitatea.

— Tolomendi.

— EHNE.

— ENBA.

— Aranzadi Zientzia Elkartea.

— Haritzalde Naturzaleen Elkartea.

— Eguzki talde ekologista.

— Ekologistak Martxan.

— Itsas Enara Ornitologia Elkartea.

Halaber, dokumentazioa eskuragarri egon da Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren Interneteko www.gipuzkoaingurumena.eus atarian; hartara, jendeak, oro har, eta beste edozein interesdunek egokitzat jotako ingurumen arloko ekarpenak egin zitzaten.

Epea amaituta, eta txosten hau igorri zen egunera arte, erantzun hauek jaso dira:

— URA: Jakinarazten duenez, kontsulta Kantauriko Konfederazio Hidrografikora bidali da, aipagai den gaiaren inguruan informatzea komenigarritzat jotzen duen ikusteko. Bigarren txosten batean, URAk jakinarazi du ezen, aldaketak bere oniritzia izan dezan, erantzun egokia eman beharko zaiola agentzia horrek 2022ko urtarrilaren 13an egindako eskaerari, eta, funtsean, plan bat eta konpromiso zehatzak aurkeztu beharko direla (epea, aurrekontua, finantzaketa-konpromisoa) udal isurketak saneatu eta arazteko, edo isurketak Oria Erdialdeko saneamendu sare orokorrera konektatzeko, hondakin urak Adunako Uraldeko HUAra bideratzen baititu. Proposatutako erabilera berriak, isurketak eragiten baitituzte, ezin izango dira garatu harik eta hondakin uren tratamendu egoki bat bermatzen duen soluzioa izan arte. Era berean, adierazten du kontuan hartu eta grafiatu beharko dela Albizturko hiri nukleoaren azpitik doan erreka estalia, jabari publiko hidraulikoa baita (JPH), eta erakunde kudeatzailearen txosten bat aurkeztu beharko dela lehendik dauden azpiegiturak garapen berrietako ur hornidura bermatzeko nahikoak izateari buruz.

— Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza: Dokumentazioa aztertu ondoren, jakinarazten du ezen, proiektu horren eremuan, ez dela afekziorik hautematen Kultura Ondarean.

— Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza: Bidalitako dokumentazioa aztertu ondoren, ez dute beharrezkotzat jo txostena egitea.

— Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza: Jakinarazten du ezen, Albizturko udalerria, arrisku sismikoari dagokionez, V-VI intentsitateko eremuan da-

— Dirección de atención de emergencias y meteorología del Gobierno Vasco.

— Dirección de Infraestructuras de Transporte del Gobierno Vasco.

— Dirección de Agricultura y Ganadería del Gobierno Vasco.

— Dirección de Energía, Minas e Industria del Gobierno Vasco.

— Delegación Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Salud del Gobierno Vasco.

— IHOBE.

— EVE.

— Agencia Vasca del Agua (URA).

— Consorcio de Aguas de Gipuzkoa.

— Confederación Hidrográfica del Cantábrico.

— Tolosaldea Garatzen.

— Mancomunidad de Residuos de Tolosaldea.

— Tolomendi.

— EHNE.

— ENBA.

— Aranzadi Zientzia Elkartea.

— Haritzalde Naturzaleen Elkartea.

— Grupo ecologista Eguzki.

— Ekologistak Martxan.

— Itsas Enara ornitologia Elkartea.

Asimismo, la documentación ha estado accesible en el portal de Internet de la Dirección General de Medio Ambiente, www.gipuzkoaingurumena.eus para que el público en general y cualquier interesado pudiera realizar las aportaciones de carácter ambiental que considerase oportunas.

Finalizado el plazo y hasta la fecha de emisión de este informe, se han recibido las siguientes respuestas:

— URA: Informa que la solicitud de consulta ha sido trasladada a la Confederación Hidrográfica del Cantábrico por si estima conveniente informar el asunto de referencia. En un segundo informe URA informa que para que la modificación pueda tener su visto bueno, deberá darse respuesta satisfactoria al requerimiento de esta Agencia de 13 de enero de 2022, de manera que, fundamentalmente, se presente un plan y compromisos concretos (plazo, presupuesto, compromiso de financiación) para la realización del saneamiento y depuración de los vertidos municipales, o conexión de los vertidos a la red general de saneamiento del Oria Medio que conduce las aguas residuales a la EDAR de Uralde en Aduna. Los nuevos usos propuestos generadores de vertidos no podrán desarrollarse hasta que no se disponga de la solución que garantice un tratamiento adecuado de las aguas residuales. Asimismo, indica que deberá tenerse en cuenta y grafiar el arroyo en cobertura que discurre por debajo del núcleo de Albiztur que constituye Dominio Público Hidráulico (DPH) y que deberá presentarse un informe del Ente Gestor en relación con la suficiencia de las infraestructuras existentes para garantizar el suministro de agua de los nuevos desarrollos.

— Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco: Revisada la documentación, informa que en el ámbito de dicho proyecto no se aprecian afecciones en el Patrimonio Cultural.

— Dirección de Agricultura y Ganadería del Gobierno Vasco: Tras analizar la documentación remitida, no consideran necesario emitir informe.

— Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología del Gobierno Vasco: Informa que el municipio de Albiztur, en cuanto a riesgo sísmico, se sitúa en zona de intensidad V-VI por lo que

goela; beraz, ez du Larrialdietako Plan Sismikorik egin behar, nahiz eta kontuan hartu behar duen eraikuntza berrietako lurrikaren aurkako eraikuntzari buruzko araua. Baso-suteen arriskuari dagokionez, azaldu du ezen, HE1 Erdigunea 1 eta HE2 Erdigunea 2 eremuak arrisku txikiko zonan daudela.

— Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituren Zuzendaritza: Jakinarazten du EAEren eskumeneko trenbide azpiegitura bakar bat ere ez dagoela Albizturgo udalerrian; beraz, trenbide batek ere ez du hura zeharkatzen. Horregatik, ez dago arrazoirik aldaketaren aurka egiteko, trenbide ikuspegitik begiratuta.

— Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritza: 12. artikuluaren aldaketari dagokionez, iruditzen zaio hobeto aprobetxatzea dakarrela lehendik dagoen bizitegi lurzorua zenbait eragiketaren kasuan –hiri lurzoruan lehendik dauden bizitegi eraikinak birgaitu, ordeztu, eraberritu edo azpizatitu–; beraz, aldeko balorazioa egiten da. 46. artikuluaren aldaketari dagokionez, jakinarazten du HAPOren aldaketak bete beharko duela 2/2006 Legeak, ekainaren 30ekoak, lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, 35. eta 77. artikuluetan arautuakoa. 52. artikuluaren eta HIE Erdigunea 1 eta 2 Arau Partikularrei dagokien dokumentazio grafikoaren aldaketari dagokionez, antolamendu xehatua udal eskumen bat da, baina, bere ustez, eraikin jakin batzuk beren lurzatiaren barruan mugitzeko aukera areagotzen denez, haien azken kokapenaren gaineko kontrola galtzen da mugakide diren eraikinei dagokienez, eta, beraz, berebat aldatzen da oraingo HAPOn planifikatu zen hiri eremu osorako antolamendu proposamenetik abiatuta lortzea espero zen emaitza. Bestalde, Albiztur ibaia lurpean dagoenez, kontuan hartu beharko da Uren Legean ezarritakoa, eta eragotzi haren gainean eraikitzea. IIBE Ingurumen Inpaktuaren Baterako Ebaluazioko 2. planoan Santa Marina eraikinaren erabileran egindako akatsa zuzentzeari dagokionez, udalak, lehenik eta behin, kontuan hartu behar du IIBEko planoetan ez dela Hirigintza-antolamendurik egiten, eta, bigarrenik, kokatuta dagoen lurzorua urbanizaezina denez, ez dagoela bizitegi erabilera egiterik eskola hartzen duen lursailean, salbu eta nekazaritza eta abeltzaintzako ustiaketari lotutako etxebizitza bat bada, edo landa-nukleo bat mugarriztatzeko aukera badago 2/2006 Legeko 29. artikuluan ezarritako baldintzekin.

Erantzunak, ingurumen txosten estrategikoarekin batera, Albizturko Udalari bidaliko zaizkio, eta geroago erantzunen bat jasoz gero, hori ere Udalari bidaliko zaio lehenbailehen, kontuan har dezaten aldaketa idaztean eta izapidetzean.

*3. Planteatutako aldaketaren deskripzioa.*

Albizturko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra 2017ko irailaren 19an onartu zen behin betiko. Orain planteatzen den HAPOren lehen aldaketa puntualak aldaketa hauek hartzen ditu:

* HAPOko Araudi Orokorraren aldaketak:

— 12. artikulua. Erabilera xehatuko azpizonen eraikuntza-, erabilera- eta jabari-araubide orokorra: «a.10 Asentamendu Zaharren Bizitegi Partzela». Aldatzen da B atala (Eraikuntza araubide orokorra), b azpiatala (Etxebizitza kopurua), murrizteko, eraikigarritasuna aldatu gabe, etxebizitzaren gutxieneko azalera, 125 m²(t)-tik 80 m²(t)-ra, eta kentzeko, 3 etxebizitzako gehienekoa eraikuntza bakoitzeko. Aldaketa hori egiten da uste delako egungo baldintzak murriztaileegiak direla; beraz, ezin zaio erantzun udalerrian dagoen eskari latenteari, hau da, ekonomikoki eskuragarriagoa den produktu bat merkatura ateratzea eskatzen duenari, eta herritarren premiei erantzuten dienari, familia-unitateen egungo tamaina kontuan hartuta.

— 46. artikulua. Eraikigarritasun fisikoa zenbatzeko irizpideak. Kentzen du eraikin berrietako espazio irekien azaleraren % 50eko zenbaketa (balkoiak, terrazak eta eguterak). Aldaketarekin, bai eraikuntza berrietan, bai lehendik daudenak birgaitzean, azalera horiek ez dira zenbatuko eraikigarritasun fisikoaren zati gisa. Aldaketa horren bidez, etxebizitzek aire zabaleko espazioak izateko

está exento de realizar un Plan de Emergencia Sísmico, aunque debe tener en cuenta en las nuevas construcciones la Norma de Construcción sismorresistente. En cuanto al riesgo de incendios forestales, expone que los ámbitos AU1 Erdigunea 1 y AU2 Erdigunea 2, se encuentran en zona con riesgo bajo.

— Dirección de Infraestructuras del Transporte del Gobierno Vasco: Informa que ninguna infraestructura ferroviaria competencia de la CAPV se localiza ni atraviesa el municipio de Albiztur, por lo que no existen razones para oponerse a la modificación desde el punto de vista ferroviario.

— Dirección de Planificación Territorial y Agenda Urbana: Respecto a la modificación del artículo 12, considera que conlleva un mejor aprovechamiento del suelo residencial existente dentro del supuesto de operaciones de rehabilitación, sustitución, reforma o subdivisión de edificaciones residenciales ya existentes en suelo urbano, por lo que se valora favorablemente. En cuanto a la modificación del artículo 46, informa que la modificación del PGOU deberá ajustarse a lo regulado en los artículos 35 y 77 de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo. Respecto a la modificación del artículo 52 y de la documentación gráfica correspondiente a las Normas Particulares AUI Erdigunea 1 y 2, la ordenación pormenorizada es una competencia municipal, pero, considera que, al aumentar la posibilidad de movimiento dentro de su parcela de ciertas edificaciones, se pierde el control sobre su ubicación final en relación a las edificaciones colindantes y, por tanto, también, se altera el resultado que se esperaba obtener a partir de la propuesta de ordenación para el conjunto del ámbito urbano que se planificó en el presente PGOU. Por otro lado, dada la presencia soterrada del río Albiztur, se deberá tener en cuenta lo establecido en la Ley de Aguas, e impedir la edificación sobre el mismo. En cuanto a la subsanación del error en el uso del edificio Santa Marina en el plano 2 del ECIA, el ayuntamiento, primero, debe tener en cuenta que, en los planos de ECIA, no se realizan ordenaciones urbanísticas y, segundo, que, dado que el suelo donde se localiza es no urbanizable, no hay cabida de un uso residencial en la parcela que contiene la escuela, salvo de que se trate de una vivienda vinculada a explotación agroganadera, o si se pudiera delimitar un Núcleo Rural con las condiciones establecidas en el artículo 29 de la Ley 2/2006.

Las respuestas, junto con informe ambiental estratégico, serán remitidas al Ayuntamiento de Albiztur, y en caso de recibirse alguna respuesta posterior, ésta también será remitida al Ayuntamiento en el plazo más breve posible, a fin de que sea tenida en cuenta en la redacción y tramitación de la modificación.

*3. Descripción de la modificación planteada.*

El Plan General de Ordenación Urbana de Albiztur fue aprobado definitivamente el día 19 de septiembre de 2017. La primera modificación puntual del PGOU que ahora se plantea incluye las siguientes modificaciones:

* Modificaciones en la Normativa General del PGOU:

— Artículo 12. Régimen general de edificación, uso y dominio de las subzonas de uso pormenorizado: «a.10 Parcela Residencial de Asentamientos Antiguos». Se modifica el apartado B (Régimen general de edificación), subapartado b (Número de viviendas), para reducir, sin modificar la edificabilidad, la superficie mínima de vivienda de 125 m²(t) a 80 m²(t) y eliminar el máximo de 3 viviendas por edificación. Se realiza este cambio porque se considera que las actuales condiciones son demasiado restrictivas, con lo que no permiten responder a la demanda latente existente en el municipio que pide la salida al mercado de un producto económicamente más asequible y, que atienda a las necesidades de la ciudadanía teniendo en cuenta el actual tamaño de las unidades familiares.

— Artículo 46. Criterios de cómputo de la edificabilidad física. Elimina el cómputo al 50 % de la superficie de los espacios abiertos de las nuevas edificaciones (balcones, terrazas y solanas). Con la modificación, tanto en las nuevas edificaciones como en la rehabilitación de las existentes, estas superficies no computarán como parte de la edificabilidad física. Esta modifi-

EK\CV GAO-I-2022-00950

beharrari erantzun nahi zaio, COVIDak eragindako konfinamenduan nabarmen gelditu den bezala.

— 52. artikulua. «a.20 Garapen txikiko bizitegi partzela»: Eraikuntzaren forma arautzeko baldintza orokorrak. Atal berri bat gehitzen du, 10.a, Zuzkidura-jarduketetako eraikuntzen mugimendu eremuari eta baldintzei buruzkoa. Aldaketa horren bidez, malgutasun handiagoa eman nahi zaie HIE Erdigunea 1en eta HIE Erdigunea 2n aurreikusitako esku-hartzeei, zuzkidura-jarduketen bidez, zeintzuetan ez baita aurreikusten eraikigarritasuna handitzea orain dagoenaren aldean. Esku-hartze horien erregulazio berriak aurreikusten du, alde batetik, aurreikusitako eraikuntza berrien mugimendu eremua aldatzea, baita eraikigarritasun berria eraikuntza nagusi batean eta beste eraikuntza osagarri batean banatzeko aukera arautzea ere, eta, bestetik, araubide berri horren antolamendu baldintzak ezartzea. Aldaketa horren ondorioz, dagokion dokumentazio grafikoan ere aldatzen da –Arau Bereziak, HIE Erdigunea 1 eta 2ren 2. grafikoak– eraikuntza berriko mugimendu eremua.

* Erraten zuzenketa:

— «HE3, Industrialdea B» Hirigintza eremuko Arau Partikularra. Zehazki, Hirigintza-eremuko erabilerako partzelak zehazten diren taulan, f.20 azpieremuaren azalera osoak 2.904 m²-koa izan behar du, eta ez 2.094 m²-koa, agertzen den bezala.

— IIBEko «Erabilera eta landaredia lurraldean» eranskineko 2. planoa. Santa Marina Eskola eraikina bizitegi gisa grafiatu behar da, eta ez ekipamendu gisa.

*4. Ingurumen ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen V. eranskinean jasotzen diren irizpideen araberako azterketa.*

A. Planaren ezaugarriak.

Aldaketa puntual horrek esparrua ezartzen du hiri lurzoru edo lurzoru urbanizagarri gisa sailkatutako lurzoruetan eraikuntza-proiektuak egiteko.

Planaren bi alternatiba hauek baino ez dira aztertzen: 0 alternatiba (HAPO ez aldatzea) eta Hirigintza-dokumentuari erantsitako proposamena (1. alternatiba). 0 alternatibak indarrean dagoen plangintzaren Hirigintza-araudia finkatzea dakar; beraz, ez lieke erantzungo merkatuaren behar berriei, ez eta, pandemiaren ondoren, eraikinetan espazio irekiak behar izateari dagokionez planteatutakoei ere. Bestalde, 1. alternatibak, zeina baita azkenean hartzen denak, HAPOren Hirigintza-araudiaren aginduak antzemandako premietara egokitzea dakar, ingurumen efektu nabarmenik sortu gabe eta garapen jasangarriago bat ahalbidetuz; izan ere, eraikigarritasuna aldatu gabe, etxebizitzaren gutxieneko azalera murrizten da, eta, beraz, udalerriko etxebizitza-kopurua handitzen, baina, aldi berean, lurzoruaren okupazio handiago baten ondorioak saihesten dira.

Beste alde batetik, 1. alternatibak ingurumenaren gaineko inpaktu bat ekarriko du obrak egin bitartean, HAPOn proposatutako garapenetatik eratorritakoaren oso antzekoa. Oro har, aldi baterako inpaktuak izango dira, itzulgarriak, berreskuragarriak eta tamaina txikikoak, baita onargarriak eta proportzionatuak ere sortzen duten onurarekiko.

Plan honen bidez sartutako zehaztapenak ez dira garatuko beste plan edo programa batzuen bidez, baizik eta zuzenean eraikuntza- edo obra-proiektuen bidez, aldez aurretik dagozkion lizentziak eskatu beharrarekin. Ez dagokio ingurumen arloko Europako edo estatuko legeria zuzenean ezartzeko, baina nahikoa ahalbidetzen du ingurumen kontsiderazioak integratzea.

cación pretende responder a la necesidad de que las viviendas cuenten con espacios al aire libre, tal y como ha quedado de relevancia durante el confinamiento por el COVID.

— Artículo 52. «a.20 Parcela residencial de Bajo Desarrollo»: Condiciones generales de regulación de la forma de la edificación. Incluye un apartado nuevo 10 dedicado al Área de Movimiento y condiciones de las edificaciones en Actuaciones de dotación. Esta modificación pretende dar una mayor flexibilidad a aquellas intervenciones previstas en las A.U.I. Erdigunea 1 y A.U.I. Erdigunea 2, a través de actuaciones dotacionales en las que no se prevé un incremento de la edificabilidad respecto a la ahora existente. La nueva regulación de estas intervenciones prevé, por un lado, modificar el área de movimiento de las nuevas edificaciones previstas, así como regular la posibilidad de que la nueva edificabilidad pueda ser distribuida en una edificación principal y otra auxiliar, estableciendo, por otra parte, las condiciones de ordenación de este nuevo régimen. Como consecuencia de esta modificación, se cambia también en la documentación gráfica correspondiente –Normas Particulares, Gráficos 2 del AUI Erdigunea 1 y 2–, el área de movimiento de la nueva edificación.

* Corrección de Erratas:

— Norma Particular del ámbito urbanístico «A.U.3, Industrialdea B». Concretamente en la tabla donde se definen las parcelas de uso del ámbito urbanístico, la superficie total de la subzona f.20 debe ser de 2.904 m² y no de 2.094 m² como aparece.

— Plano 2 del anexo ECIA «Uso y vegetación en el territorio». El Edificio Santa Marina Eskola se debe grafiar como residencial y no como de equipamiento.

*4. Análisis en base a los criterios recogidos en el anexo V de la Ley 21/2013, de evaluación ambiental.*

A. Las características del plan.

Esta modificación puntual establece el marco para proyectos de edificación en suelos clasificados como suelo urbano y/o urbanizables.

Las dos únicas alternativas del plan que se analizan son la alternativa 0 o de no modificación del PGOU y la propuesta incorporada al documento urbanístico –alternativa 1–. La alternativa 0 supone la consolidación de la normativa urbanística del planeamiento vigente, por lo que no respondería a las nuevas necesidades del mercado, ni a las planteadas, en relación con la necesidad de espacios abiertos en las edificaciones, tras la pandemia. Por su parte, la alternativa 1, que es la que se adopta finalmente, supone la adecuación de los diversos preceptos de la normativa urbanística del PGOU a las necesidades detectadas sin generar efectos ambientales destacables y permitiendo un desarrollo más sostenible, puesto que, sin variar la edificabilidad, se disminuye la superficie mínima de la vivienda, aumentando, por tanto, el número de viviendas en el municipio pero, evitando, al mismo tiempo, los efectos derivados de una mayor ocupación del suelo.

Por otra parte, la alternativa 1 supondrá una afección ambiental durante las obras muy similar a la derivada de los desarrollos propuestos en el PGOU, tratándose, en general, de impactos de carácter temporal, reversible, recuperable y de escasa magnitud, así como asumibles y proporcionados respecto al beneficio que generan.

Las determinaciones introducidas por este plan no se desarrollarán por medio de otros planes o programas, sino directamente por medio de los proyectos de edificación y/u obras sometidos previamente a la solicitud de las correspondientes licencias. No es pertinente para la implantación directa de legislación comunitaria o nacional en materia de medio ambiente pero sí permite suficientemente la integración de consideraciones ambientales.

EK\CV GAO-I-2022-00950

B. Eragin litekeen eremuaren eta eraginen ezaugarriak.

Nahiz eta aldaketan sartutako zuzenketetako batek (azalera osoa f.20) industria-lurzoruko hiri-lurzoruari eragiten dion, HAPOren araudiko zehaztapenak aldatzeko proposamen gehienek bizitegi erabilerako hiri-lurzoruari eta lurzoru urbanizagarriari eragiten diete nagusiki. Zehazki, etxebizitzaren gutxieneko tamainari eta udalerriko etxebizitza-kopuruaren gehieneko mugari buruzko aldaketak a.10 «Kokaleku zaharren bizitegi-lurzatia» motako lurzatiei eragiten die. Bestalde, zuzkidura-jarduketetako mugimendu eremuko malgutasunak bi hiri-lurzatiri eragiten die, bata HIE Erdigunea 1en eta bestea HIEI Erdigunea 2an. Eraikuntzetako espazio irekien eraikigarritasun fisikoaren zenbaketari buruzko aldaketak udal-mugarteko eraikin berriei zein birgaituei eragingo die, baina uste da haien ingurumen eraginak hautemanezinak eta ez-esanguratsuak izango direla.

Horregatik guztiagatik, eragindako eremuaren karakterizazioa zentratuko den azterketa-eremua eta aldaketaren eraginena HIE Erdigunea 1 eta HIE Erdigunea 2 Hirigintza-eremuak izango dira, non 1. alternatibak eragin handiagoa izan dezakeen.

Ildo horretan, bi Hirigintza-eremu horiei lotutako ingurumen baliabide eta elementu garrantzitsuenak hauek izango dira:

— Sare hidrologikoa: Salubita erreka lurpetik igarotzen da nagusiki eremu horietan, Bide Komunikazioko Sarearen azpitik, funtsean (e.10).

— Hidrogeologia: Azterketa-eremua Gazume-Tolosa lurpeko ur-masan oinarritzen da, egoera global on batekin, eta interes hidrologikoko eremutzat hartzen da.

— Balio agrologiko handiko lurzoruak: Aztertutako eremuan balio estrategiko handiko lurzoruen eremu txikiak daude, Nekazaritza eta Basozaintzako LPSaren arabera.

— Batasunaren intereseko landaretza eta habitatak: Ez da intereseko landaretza-masarik kartografiatzen, eta nagusi dira belar-formazioak eta zuhaitz sakabanatuak dituzten eremu urbanizatuak. Batasunaren intereseko habitatei dagokienez, aztertutako eremua bat dator batez ere 6510arekin –Altitude baxuko sega-belardi pobreak–, nahiz eta badauden bi orban txiki: 6210 –Belardi lehor erdinaturalak eta kare-substratuen gaineko sastrakadi-faziesak–, eta 9340 –Quercus ilex eta Quercus rotundifolia basoak–.

— Korridore ekologikoen sarea: Hernio-Gazume, Aralar eta Izarraitzeko espazio nukleoak eta haien moteltze-eremua lotzen dituen korridoreak Albizturko herrigunea inguratzen du mendebaldetik.

— Paisaia: Aldaketak eragindako eremuak Albiztur errekaren ikus-arroan daude, zeina kalitate handikoa baita, udalerria osatzen duen nekazaritzako eta basogintzako mosaikoagatik, eta horri lotuta hiriguneko eraikinen balio estetiko kulturala eta Hernio-Gazume KBEa egotea udalerriaren iparraldean, jarduketa-eremutik kanpo.

— Ingurumen arriskuak: HIE Erdigunea 1 eremuaren hego-mendebaldean, kokapen bat identifikatzen da jasota dagoena Kutsagarriak izan daitezkeen instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioan, baina lurzatia kokatzen da dagoeneko urbanizatuta dagoen eremu batean, non HAPOren aldaketak ez duen inolako aldaketarik eragingo. Bestalde, aztertutako eremua akuiferoen kalteberatasun handiko eta oso handiko eremuen gainean kokatzen da.

Aldaketak eragin ditzakeen inpaktuei dagokienez, hau da, berritzat edo indarrean dagoen HAPOk sortutakoekin alderatuta garrantzi desberdinekotzat jotzen direnei dagokienez, kontuan hartu behar da aldaketa horrek ez dakarrela lurzoruaren okupazio handiagoa; beraz, baztertu egin daitezke okupazio hazkunde horri lotuta egon daitezkeen inpaktuak. Ondarean ere ez da afekzio-

B. Las características de los efectos y del área probablemente afectada.

Si bien una de las correcciones incluidas en la modificación (superficie total f.20) afecta a suelo urbano de suelo industrial, la mayor parte de las propuestas de la modificación de las determinaciones de la normativa del PGOU afectan principalmente a suelo urbano y urbanizable de uso residencial. Concretamente la modificación relativa al tamaño mínimo de vivienda y al límite máximo en el número de viviendas del municipio afecta a las parcelas del tipo a.10 «Parcela residencial de asentamientos antiguos». Por su parte, la flexibilización en el área de movimiento en actuaciones dotacionales afecta a dos parcelas urbanas, una situada en el AUI Erdigunea 1 y otra en el AUI Erdigunea 2. La modificación relativa al cómputo de edificabilidad física de los espacios abiertos de las edificaciones afectará tanto a edificaciones nuevas como a las rehabilitadas del término municipal, pero se considera que sus afecciones ambientales serán inapreciables y no significativas.

Por todo ello, el ámbito del estudio en el que se centrará la caracterización del área afectada, así como de los efectos de la modificación será los ámbitos urbanísticos AUI Erdigunea 1 y AUI Erdigunea 2, donde la alternativa 1 puede tener una mayor incidencia.

En este sentido, los recursos y elementos ambientales más relevantes asociados a estos dos ámbitos urbanísticos serán los siguientes:

— Red Hidrográfica: La regata Salubita discurre mayormente soterrada en estos ámbitos, básicamente, por debajo de la Red de Comunicación Viaria (e.10).

— Hidrogeología: el ámbito de estudio se asienta sobre la masa de agua subterránea Gatzume-Tolosa con un estado global bueno y que se considera Zona de interés hidrológico.

— Suelos de alto valor agrológico: En el ámbito de estudio hay pequeñas áreas de suelos de alto valor estratégico según el PTS Agroforestal.

— Vegetación y hábitats de interés comunitario: No se cartografían masas de vegetación de interés, dominando las formaciones herbáceas y las zonas urbanizadas con arbolado disperso. En cuanto a los hábitats de interés comunitario, el ámbito de estudio coincide principalmente con el 6510 Prados pobres de siega de baja altitud, aunque hay también dos pequeñas manchas de 6210 Prados secos seminaturales y facies de matorral sobre sustratos calcáreos, así como 9340 Bosques de Quercus ilex y Quercus rotundifolia.

— Red de corredores ecológicos: El corredor que une los espacios núcleo de Ernio-Gatzume, Aralar e Izarraitz y su área de amortiguación rodean el casco urbano de Albiztur por el Oeste.

— Paisaje: Las áreas afectadas por la modificación pertenecen a la cuenca visual del Albiztur que tiene una calidad alta, debido al mosaico agrario-forestal que conforma el municipio, unido al valor estético-cultural de las edificaciones del núcleo urbano y la presencia de la ZEC Ernio-Gatzume en la zona norte del municipio, fuera del ámbito de actuación.

— Riesgos ambientales: En el suroeste del ámbito AUI Erdigunea 1 se identifica un emplazamiento incluido en el Inventario de suelos que soportan o han soportado instalaciones potencialmente contaminantes, pero la parcela se localiza en una zona ya urbanizada en la que la modificación del PGOU no va a suponer cambio alguno. Por otra parte, el ámbito de estudio se localiza sobre zonas de alta y muy alta vulnerabilidad de acuíferos.

En cuanto a los potenciales impactos producidos por la modificación, es decir aquellos que se consideran nuevos o de diferente magnitud en relación con los generados por el PGOU vigente, debe tenerse en cuenta que dicho modificación no supone una mayor ocupación del suelo, por lo que se pueden descartar los impactos que pudieran estar asociados a dicho incremento

EK\CV GAO-I-2022-00950

rik izango, ez baita aldatzen indarrean dagoen HAPOk katalogatutako elementuei ematen dien babesa. Azkenik, kontuan hartuta Salubita erreka lurpean dagoela Albizturko hirigunearen azpian, gainazaleko uren gaineko afekzioak baztertzen dira.

Bestalde, zuzkidura-jarduketetan mugimendu eremua malgutu edo zabaltzeak, zehazki a.20.(1)_21 eta a.20.(2)_01 bizitegi lurzatietan, eragin liezaieke landaredi edo lurzoruaren erabilera mota desberdinei; beraz, baita faunari eta hiri-paisaiari ere. Era berean, eraikigarritasun fisikoaren irizpideak aldatzeak aldaketa txikiak eragin litzake hiri-paisaian ustiapen fasean. Inpaktu horiei dagokienez, eta indarrean dagoen HAPOn dagoeneko kontuan hartutakoekin alderatuta, hauek hartu behar dira kontuan:

— Landaretza: Eraikigarritasunari eusten zaionez eta mugimendu eremua zabaltzeak eragindako azalerek indarrean dagoen HAPOk eragindakoen ezaugarri berberak dituztenez, uste da aldaketa garatzeak landaredian izango duen eragina txikia dela eta indarrean dagoen HAPOn jada baloratutakoaren antzekoa.

— Fauna: HAPOren aldaketaren ondoriozko jarduketak garatuko dira hiri-lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian, non nagusi diren belardiak eta baratzeak; beraz, espero izatekoa da giro gizatiartuetako fauna tipikoa bakarrik egotea. Horregatik, uste dugu ezen, aldaketak, indarrean dagoen HAPOk bezala, ez duela eragin nabarmenik izango faunan, eta ez du konprometituko hirigunearen lotailu ekologiko posible gisako izaera, ez baitu aurreikusten eremu horretako landare estalki osoa kentzea, aztergai dugun eremuko belardi eta baratze asko mantenduz.

— Hiri paisaia: Kontuan hartuta HAPOren aldaketak ez dakarrela eraikigarritasunaren garapen edo aldaketa berririk indarrean dagoen HAPOrekin alderatuta, eta eraikin berrien ezaugarriek indarrean dagoen araudiaren zehaztapenak errespetatu beharko dituztela, estetikari dagokionez, uste da ustiapen fasean dagoen paisaiaren gaineko inpaktua txikia izango dela eta indarrean dagoen HAPOrako jada baloratutakoaren antzekoa.

Azkenik, kontuan hartuta ezen, HAPOren aldaketak, eraikigarritasuna handitzen ez badu ere, etxebizitza gehiago eraikitzea ahalbidetuko duelarik, HAPOrenak ez bezalako tamainako inpaktuak sor ditzakeela ustiapen fasean, hondakinen sorrerari eta baliabideen kontsumoari dagokienez. Hala,

— Hondakinen sorrera: Kontsideratzen da ezen, etxebizitzen gutxieneko azalera 125 m²-tik 80 m²-ra jaisteak ekarriko duen etxebizitza-kopuruaren igoerak, eskualdean gaur egun sortzen den hondakin-bolumenari dagokionez, ez duela hazkunde handirik eragingo.

— Baliabideen kontsumoa: Etxebizitza kopurua handitzeak indarreko HAPOn aurreikusitakoa baino baliabideen kontsumo handiagoa ekar badezake ere, aldaketarekin batera doan hirigunearen dentsifikazioak eraginkortasun handiagoa ekarriko du baliabideen erabileran. Gainera, ingurumen dokumentu estrategikoan, neurri babesle eta zuzentzaileak sartu dira, ahalik eta eraginkortasun handiena lortzeko, ura eta energia aurreztearen arloan, eta energia berriztagarrien erabilera eta mugikortasun jasangarri eta ez-motorizatua indartzeko.

Ondorioz, aurreko guztiarekin bat etorriz, eta hala ezartzen baitu, 31. artikuluan, 21/2013 Legeak, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoak, eta aurreikusten baitu 16/2020 Foru Dekretuak, abenduaren 9koak, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak ingurumen txosten estrategiko hau egin du, alderdi hauek kontuan hartuz:

*Lehenengo.* Ez jartzea Albizturko HAPOren lehen aldaketa puntuala ingurumen ebaluazio estrategiko arruntaren mende; izan ere, 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, V. eranskinean ezarritako irizpideekin bat etorriz egindako analisiaren arabera, ondorioztatzen da ez duela eragin negatibo nabarmenik izango

en la ocupación. Tampoco habrá afecciones al patrimonio, ya que no se altera la protección de los elementos catalogados otorgada por el PGOU vigente. Finalmente, teniendo en cuenta que la regata Salubita se encuentra soterrada bajo el casco urbano de Albiztur, se descartan afecciones a aguas superficiales.

Por otra parte, la flexibilización o ampliación del área de movimiento en actuaciones de dotación, concretamente en las parcelas residenciales a.20.(1)_21 y a.20.(2)_01, podría suponer la afección a distintos tipos de vegetación o usos del suelo y en consecuencia a la fauna y el paisaje urbano. Asimismo, la modificación de los criterios de la edificabilidad física también podría dar lugar a pequeños cambios en el paisaje urbano durante la fase de explotación. Respecto a estos impactos y su comparación con los ya considerados en el PGOU vigente, hay que tener en cuenta que:

— Vegetación: Dado que se mantiene la edificabilidad y que las superficies afectadas por la ampliación del área de movimiento presentan las mismas características que las afectadas por el PGOU vigente, se considera que el impacto a la vegetación por el desarrollo de la modificación es de escasa magnitud y similar al ya valorado en el PGOU vigente.

— Fauna: Las actuaciones derivadas de la modificación del PGOU se desarrollarán en suelo urbano y urbanizable con predominio de praderas y huertas, por lo que cabe esperar solo la presencia de la fauna típica de los ambientes humanizados. Por ello, se considera que la modificación, lo mismo que el PGOU vigente, no supondrá un efecto significativo sobre la fauna y no comprometerá la condición del núcleo urbano como posible conector ecológico, ya que no contempla la eliminación de totalidad de la cubierta vegetal de la zona, manteniendo muchos de los prados y huertas del ámbito de estudio.

— Paisaje urbano: Teniendo en cuenta que la Modificación del PGOU no supone nuevos desarrollos ni cambios en la edificabilidad con respecto al PGOU vigente, y, que las características de los nuevos edificios, deberán respetar las determinaciones de la normativa existente, en lo que a estética se refiere, se considera que el impacto sobre el paisaje en fase de explotación será de escasa magnitud y similar al ya valorado para el PGOU vigente.

Finalmente, teniendo en cuenta que la modificación del PGOU, si bien no aumenta la edificabilidad, permitirá la construcción de un mayor número de viviendas, puede generar impactos en la fase de explotación de diferente magnitud a los del PGOU vigente en relación a la generación de residuos y el consumo de recursos. Así,

— Generación de residuos: Se considera que el aumento del número de viviendas que supondrá la disminución de la superficie mínima de las mismas de 125 m² a 80 m² producirá, en relación con el volumen de residuos generado actualmente en la comarca, un incremento escaso en su generación.

— Consumo de recursos: Si bien el aumento en el número de viviendas puede suponer un mayor de consumo de recursos que el previsto en el PGOU vigente, la densificación del núcleo urbano que también acompaña a la modificación redundará en una mayor efectividad en el uso de los mismos. Además, se incluyen medidas protectoras y correctoras en el documento ambiental estratégico, para la consecución de la máxima efectividad posible en materia de ahorro de agua y energía y la potenciación del uso de las energías renovables y la movilidad sostenible y no motorizada.

En consecuencia, de acuerdo con todo lo anterior y según lo dispuesto en el artículo 31 de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental y, en virtud de lo previsto en el Decreto Foral 16/2020 de 20 de octubre, esta Dirección General emite el presente Informe Ambiental Estratégico en los términos siguientes:

*Primero.* No someter la Primera modificación puntual del PGOU de Albiztur a evaluación ambiental estratégica ordinaria, ya que, de acuerdo con el análisis efectuado de conformidad con los criterios establecidos en el anexo V de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, se concluye que no va a producir efectos ne-

ingurumenean, baldin eta ingurumen txosten estrategiko honen bigarren apartatuan ezarritako baldintzak betetzen badira.

*Bigarren.* Albizturko HAPOren aldaketa puntual honek zehaztapen hauek hartu beharko ditu kontuan:

— 52. artikuluko aldaketei dagokienez eta Arau Partikularren planoan a.20.(2).01 bizitegi lurzatiaren mugimendu eremua mugatzeari dagokionez, kontuan hartu beharko da URAk bere garaian zer ezarri zuen Albizturko HAPOri buruzko 2015eko uztailaren 10eko bere txostenean Salubita errekastoaz, zeina estalita baitoa Bide Komunikazioko Sarearen (e.10) azpiko eremutik: erreka hori Jabari Publiko Hidraulikoa da; beraz, aplikatzekoak dira urei buruz indarrean dagoen legeriaren zehaztapenak, baita EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialeko atzeratzeak ere. Alderdi horiek bete beharko dituzte urbanizazioko eta eraikuntzako behin betiko aurreikuspenek.

— Indarrean dagoen HAPOren Hirigintza Arau Orokorretan sartu beharko dira, bosgarren tituluko –Ingurumena, Paisaia eta Natura Babesteko Arauak– 1. eta 2. kapituluen barruan, ingurumen dokumentuak 10. apartatuan definitutako neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaileak, dagoeneko titulu horretan ez daudenak, eta eguneratu beharko dira, titulu horretan sartuta egon arren, HAPO onartu zenetik sortutako araudi berriak eragin dienak.

— Era berean, indarrean dagoen HAPOren Hirigintza Arau Orokorretan sartu beharko dira, bosgarren tituluko –Ingurumena, Paisaia eta Natura Babesteko Arauak– 4. kapituluaren barruan –Zaintza-programak–, ingurumen dokumentuak 11. apartatuan definitutako jarraipen programako kontrolak, dagoeneko kapitulu horretan ez daudenak, edo, egon arren, berrikusi behar direnak, kontuan hartuta HAPO onartu zenetik haiek ezartzean lortutako esperientzia.

*Hirugarren.* 21/2013 Legeko 31.4. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, ingurumen txosten estrategiko honek indarraldia galduko du eta berezkoak zaizkion ondorioak izateari utziko dio, baldin eta, behin Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta, aldaketa onetsi ez bada hura argitaratu eta lau urteko epean beranduenez.

*Laugarren.* Agintzea ingurumen txosten estrategiko hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta zuzendaritza honen web orrian argitara dadila.

Donostia, 2022ko otsailaren 9a.—Mónica Pedreira Lanchas, Ingurumeneko zuzendari nagusia. (950)

gativos significativos sobre el medio ambiente, siempre que se cumplan los términos que se establecen en el apartado segundo de este informe ambiental estratégico.

*Segundo.* La presente modificación puntual del PGOU de Albiztur deberá tener en cuenta las siguientes determinaciones:

— En relación a las modificaciones en el artículo 52 y, en la delimitación en el plano de Normas Particulares del área de movimiento de la parcela residencial a.20.(2).01, deberá tenerse en cuenta lo establecido, en su momento, por URA en su informe del 10 de julio de 2015 sobre el PGOU de Albiztur respecto al arroyo Salubita que discurre en cobertura en la zona por debajo de la Red de Comunicación Viaria (e.10): dicho arroyo constituye Dominio Público Hidráulico y, por tanto, son de aplicación las determinaciones de la legislación vigente de aguas, así como los retiros del Plan Territorial Sectorial de Ordenación de Márgenes de Ríos y Arroyos de la CAPV, aspectos que deberán cumplir las previsiones definitivas de urbanización y edificación.

— Se deberá proceder a la incorporación en las Normas Urbanísticas Generales del PGOU vigente, dentro de los capítulos 1 y 2 de su Título Quinto Normas de Protección Ambiental, Paisajística y Naturalística, de aquellas medidas protectoras, correctoras y compensatorias definidas por el documento ambiental en su apartado 10 que no estén ya presentes en dicho Título y a la actualización de aquellas que estándolo, han sido afectadas por nueva normativa surgida desde la aprobación del PGOU.

— Asimismo, se deberá proceder a la incorporación en las Normas Urbanísticas Generales del PGOU vigente, dentro del capítulo 4 Programas de vigilancia del Título Quinto Normas de Protección Ambiental, Paisajística y Naturalística, de los controles del programa de seguimiento establecido en el apartado 11 del documento ambiental que no estén ya presentes en dicho capítulo, o que estándolo, necesiten de una revisión a la vista de la experiencia obtenida en su implementación desde la aprobación del PGOU.

*Tercero.* De acuerdo a lo establecido en el artículo 31.4 de la Ley 21/2013, el presente informe ambiental estratégico perderá su vigencia y cesará en la producción de los efectos que le son propios si, una vez publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, no se hubiera procedido a la aprobación de la modificación en el plazo máximo de cuatro años desde su publicación.

*Cuarto.* Ordenar la publicación del presente informe ambiental estratégico en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en la página web de esta Dirección.

San Sebastián, a 9 de febrero de 2022.—La directora general de Medio Ambiente, Mónica Pedreira Lanchas. (950)

EK\CV GAO-I-2022-00950